

50 anys ensenyant llengües

50 anys bastint pensaments



Text de l'exposició

Èuscar

Euskararen irakaskuntza 1992/1993 ikasturteko bigarren lauhilekoan hasi zen, Ainhoa Aranburu irakasleak gidatutako ikastaro trinko batekin. Urte hartan hemeretzi ikasle matrikulatu ziren. Hasiera batean, helburua ikasleek elkarrizketa errazak ulertu ahal izatea zen, eta eguneroko oinarrizko lokuzioekin komunikatu ahal izatea. Geroago, Aduna Olaizola irakaslea sartu zen eta Aranbururekin batera Euskara Saila finkatu zuten. Urte batzuk lehenago piztu zen, hala ere, Bartzelonan euskara ikasteko interesa. Izan ere, hamarkada bat lehenago, 1984an, bartzelonar talde batek eskolari eskatu zion euskaraz ikasteko aukera eskaini zezala. Argudiatzen zutenez, “urruneko —eta aldi berean garrantzitsuak diren— hizkuntzak ikas badaitezke, txinera eta japoniera esaterako, pentsatzen dugu logikoa eta erabilgarria litzatekeela euskara ikasteko aukera izatea ere, bere erabilgarritasun praktikoaz gain, hizkuntza ezagunekiko funtzionamendu desberdina — eta oso interesgarria — daukalako”. Halaber, aldarrikatzen zuten, “Penintsulako herrien arteko ezagutza, bizikidetzeta eta elkar ulertze hobea lortzeko ekarpena” ere izango litzatekeela euskararen irakaskuntza eskaintzea.